

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

474

EBAZPENA, 2019ko urtarrilaren 22koa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita kultura- eta gizarte-bitartekotzako eta -berrikuntzako proiektuei 2018an emandako dirulaguntzen zerrenda (Bitartez deialdia).

2017ko abenduaren 29ko EHAAn argitaratu zen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2017ko abenduaren 27ko Agindua, Kultura- eta gizarte-bitartekotzako eta -berrikuntzako proiektuei dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Agindu horretako 12.2 artikuluari jarraituz, Kulturako sailburuordeak deialdiari buruz ematen duen ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, horregatik eragotzi gabe onuradunei esleipen-ebazpena banan-banan jakinaraztea.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Argitara ematea Kultura eta Hizkuntza Politikako 2017ko abenduaren 27ko Aginduaren onuradunen eta dirulaguntzen zerrenda (eranskinean jasota dago).

Bigarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, herritar guztiak jakinaren gainean egon daitezen.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 22a.

Kulturako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

ERANSKINA

«BITARTEZ» PROGRAMARI ZUZENDUTAKO LAGUNTZAK

Kultura eta gizarte arloetako bitartekotza- eta berrikuntza-proiektuetarako dirulaguntza eman zaien zerrenda.

Eskatzailea	Proiektua	Dirulaguntza
Adierak dantza eta hezkuntza elkarte	Gorputzaldiak	35.300,00
Andrea Arrizabalaga Lasa – Ana Revuelta Andres – Maider Urrutia Goñi	Umorean (2)	23.577,00
Asoc para la difusión del cine independiente y cine de autor Begira	ZineGazteLab	28.247,00
Asoc para la reflexión y el debate Hika-Ateneoa, de Bilbao	Fem Tek.	10.152,00
Asoc Urbanbat – Laboratorio de Innovación Urbana	Urbanbat vol. 7	38.711,00
Asociación Arte por los Derechos y las Libertades Humanas – Guerrilla Kulturala elkarte	Guerrilla Art ekintza	35.077,00
C2masi S.L.	Conexiones Improbables	34.429,00
Erakusmeta kultur elkarte	ZAS kultur espazioa	28.521,00
Gatzipeko kultur elkarte	Bulegoa z/b	38.507,00
Igor de Quadra Belausteguigoitia	Eraikitzen gaituzten hitzak / Las palabras que nos construyen 2018	14.727,00
Kalakalab S.C.	Kalakalab Programa Cultural 2018-19	36.476,00
Maite Martinez de Arenaza Hidalgo	La Taller - Erredakzioa	16.013,00
Mintzola fundazioa	Ahozko kultur sorkuntzen ekosistemen elkarlana	38.817,00
Nondik S.C.	E3 Ezina Ekinez Egiteko proiektua	16.014,00
Okela	Artisten Meeting Pointa	35.732,00
A.C. Espacio Plaza Sarean K.E.	Gau Irekia 2018	34.736,00
Ttipi Studio S. Coop. Pequeña	Elkartokilab	34.964,00